

BAKE ETA BIZIKIDETZA TEKNIKARIA EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAN

ESKAINTZEN DENA:

- Urte amaiera arteko kontratua, luzatzeko aukerarekin.
- Lanaldi osoko lan kontratua.
- Donostian bete beharreko lanpostua.
- 26.250,90€ urtean (soldata gordina).
- Lantalde gazte eta dinamiko batean sartzea.
- Bakea eta bizikidetzaren alde lan egitea, gazteok ardatz izanik.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Bakea eta bizikidetzarekin lotura duten proiektuak sortu, antolatu, garatu eta ebaluatu.
- Hausnarketa eta elkarrizketarako gune erosoak eta parte-hartzaileak erraztu.
- Bakea eta bizikidetzarekin lotutako gazteen beharrak, interesak, ikuspuntuak eta proposamenak jaso, aztertu eta erakundeei eta komunikabideei helarazi.
- Gazte elkarte, gizarte mugimendu, gizarte eragile eta administrazioarekin elkarlana eta, proiektuaren arabera, koordinazioa.
- Bakea eta bizikidetzarekin lotutako gaien gaineko aholkularitza.
- EGK-ko beste lan-arloetan "bakea eta bizikidetzatza" ikuspuntua bermatu.
- EGKren beste arloekin koordinatu.

ESKATZEN DENA:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Arlo sozialean goi ikasketak izatea (Pedagogia, Soziologia, Antropologia, Filosofia...). Arlo honetako ikasketak izan ezean, egiaztatu daitekeen esperientzia izatea.
- Bake Kulturaren kudeaketan edota Giza Eskubideetan formazioa izatea (gradu-ondoko ikasketak, ikastaroak...) eta hauekiko konpromisoa.
- Gure Historia, bereziki azken hamarkadetako errealitatea eta honen gainean dauden ikuspuntu eta diskurtsoak ezagutzea.
- Parte-hartze eta dinamizazio tekniketan esperientzia izatea.
- Euskal gazteriaren, elkartegintzaren eta gizarte mugimenduen errealitatea ezagutzea.

- Euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea (EGA).
- Mugikortasunean (EAE) eta ordutegian malgutasuna izatea.
- Lanean hasteko berehalako prestutasuna izatea.

BALIOETSIKO DA:

- Elkartegintzan esperientzia izatea (gazte elkarteetan, Gobernu Kanpoko Erakundeetan, gizarte mugimenduetan...).
- Bakea eta bizikidetzaren alorrean gazteek martxan jarri dituzten, edo gazteak barnebiltzen dituzten ekimenak ezagutzea.
- Lantaldean aritzeko eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz eta arduraz garatzeko gaitasuna izatea.
- Sortzailea, arazoaren aurrean alternatibak bilatu eta hainbat ikuspuntu barnebiltzeko gaitasun.
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna.
- Ingelesa, frantsesa edo beste atzeritar hizkuntza batzuk menderatzea.
- Beste lurraldeetako bake eta bizikidetzaren prozesuak ezagutzea.

CURRICULUMAK:

- Epea: Otsailak 3, eguerdiko 12.00ak arte.
- egk@egk.org helbidera bidali / Gaian "Bake eta Bizikidetzaren teknikaria" idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu: IzenAbizenak
- Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

Curriculumen bidalketa, otsailaren 03ak arte (eguerdiko 12.00ak arte).

Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, otsailaren 7an.

Froga Idatzia Donostian, otsailaren 9an.

Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, otsailaren 14an.

Elkarrizketa eguna, otsailaren 16a.

Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, otsailaren 21ean.

Lanean hasteko data, martxoaren 20an.